

## BILBOK AURRERA EGINGO DU URIA UMEEN ETA NERABEEN ESKUTIK ERE ERAIKITZEKO KONPROMISOAREKIN

- Udalak, gaur, azaroak 20, Umeen Nazioarteko Eguna ospatu du, eta, hala, Umeen eta Nerabeen Udal Kontseiluaren osoko bilkura egin du gaur goizean, uriko adingabeen ordezkariak batekin.
- Bizkaiko hiriburua UMEEN ADISKIDE moduan berretsi zen 2018ko azaroan, UNICEFen ezagutza jasorik.
- Bilkuran, umeen eskubideen gaia landu dute eta hari buruz iritzia eman dute, bai eta hurrengo Aste Nagusiaren ospakizunaz eta osasunaz ere.
- COVID-19aren pandemiak nabarmenki eragin die ume eta nerabeei, eta jolaserako, hezkuntzarako eta gizarte arloko euren eskubideak murrizturik ikusi dituzte, besteak beste. Emozioen arloko ondorioak eta adingabeen garapenari eragin zaizkion ondorioak arintzearen, Udalak, hilabete hauetan, esku hartzeko programak abian jarri eta indartu ditu.

(*Bilbo, 2020ko azaroaren 20a*).- Bilboko Udalak gaur ospatzen du, azaroak 20, Umeen nazioarteko eguna, eta, horretarako, gaur goizean, Umeen eta Nerabeen Udal Kontseiluaren Osoko Bilkura egin du, uriko adingabeen ordezkariak batekin.

Kontseilua 11 eta 12 urteko 46 umek osatzen dute, eta, 2017tik, Bilbori buruzko ideia berrietan lan egiten du, betiere bere ikuspegitik. Hala, bada, **Udalak bilbotar umeen eta nerabeen parte hartzea sustatzen du, baita hiriaren eraikuntzan ere**, uria hobetzeko interesgarriak eta beharrezkoak iruditzen zaizkien proiektu-proposamenekin.

Kontseiluaren osoko bilkura gaur goizean egin da *online*, eta, bertan, adingabeek ez ezik, Udaleko talde politikoen ordezkariak ere parte hartu dute, eta haien artean **Juan Ibarretxek** ere bai, Gizarte Ekintzako Saileko zinegotziak, zeina Kontseiluaren buru ere baden. Bilkuran, udal jarduerarekin zerikusia duten gaiak landu dira, hala nola **umeen eskubideak** edota **osasuna**, Bilboko umeen ikuspegitik.

### **ADINGABEAK ETA COVID-19A**

Azken gai hori dela eta, alegia, osasuna, Bilboko Udalak jakin du nola ikusten duten adingabeek egungo egoera sanitarioa. COVID-19aren pandemiak nabarmenki eragin die ume eta nerabeei, eta jolaserako, hezkuntzarako eta gizarte arloko euren eskubideak murrizturik ikusi dituzte, besteak beste. Emozioen arloko ondorioak eta adingabeen garapenari eragin zaizkion ondorioak arintzearen, Udalak, hilabete hauetan, esku hartzeko programak abian jarri eta indartu ditu, **zaurgarritasun egoeran dauden familien alderako esku-hartzea bermatzearen**.

- Konfinamenduan, etxeetan gertatzen egon zitekeen ikusezin bihurtzeko prozesuak hautematearren, harreman estua eduki da eta indartu egin da lokarria babesa eta laguntza eskaintzearen, telefono dei, whatsapp, bideokonferentzia eta posta

elektronikoen bidez. Lehenengo asteetan, **udalak antolatutako taldeen bidez, asteen batez beste 11.471 harreman izan ziren 2.670 pertsonarekin (haietako 1.734 helduak, 896 adingabeak) eta asteen 958 harremani erantzun zitzaion, gutxi gorabehera.** Ondoren, maiztasun tarteak luzatu egin ziren, familien beharrian eta egoera zehatzen arabera.

- Eten digitalak erasandako familiekiko eta adingabeekiko harremana erraztearren eta umeak eta nerabeak ikastetxeekin harremanetan jarri ahal izan zitezen, **router-ak banatu zitzaizkien 70 familiari.**
- Eskolako Absentismoa Saihesteko, Hautemateko eta Kontrolatzeko Programaren bidez, azkartu egin zen familiekiko harremana, ikasleak eta familiak ikastetxeekiko loturarik gabe gera ez zitezen eta etxetik eskolaratzean absentismoa gutxitzearen, hala gerta baitzitekeen zela gogogabetzearengatik, eten digitalagatik edo tutoreek lanetan laguntzeko orduan izan zitezkeen eten digitalagatik edo bestelako zailtasunengatik. Asteen 3.533 inguru **kontaktu egin ziren, 220 adingaberekin eta 470 heldurekin, batez beste.** Halaber, materialak banatu ziren, eta ordenagailuak eskuratzeko modua erraztu zitzaien ikastetxeekin elkarlanean.
- Halaber, eta **ahalik eta gehien gutxitzearen eten digitalak baliabiderik gabeko umeen eskolaratzean duen eragina,** Udalaren gizarte zerbitzuak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ari dira, "[Aukerak Suspertzen](#)" programa, Bilboko 475 familiatako 770 adingaberi lagunduz programak eskaintzen dituen baliabideak eskuratzen.
- Esku hartze Psikosozialeko Programaren bidez (EPP), arreta psikosoziala eskaini zaie adingabeei eta helduei, ahal den neurrian, haien **egoera emozionala** ezagutu nahirik.
- Konfinamenduan zehar, eta deskonfinamenduan zehar ere bai, lehentasunezkoztat jo zen jakitea zertan ematen zuten umeek eta nerabeek aisialdia, eta haiek **jolaserako duten eskubidea** berreskuratzea. Harreman horien bidez, babesten eta sustatzen aritu izan gara familiek unerik atseginenak parteka ditzaten, batez ere txikienekin, jarduera, jolas eta erronka bidez, eta materialak eta estekak eskaini izan zaizkie horretarako.
- Konfinamenduaren ostean, garrantzitsutzat jo zen **umeentzako eta nerabeentzako udalekuen** eskaintzari eustea, bai **Udalaren bai auzoetan errotutako gizarte entitateen** udalekuei, alegia, eta, hala, espazio zabaletako jolasak berreskuratzea.
- Aurreko ekitaldietan bezala, **Hirugarren sektoreko entitateekiko elkarlan hitzarmen bati eutsi zaio,** jarraipena emanez arrisku egoeran dauden adingabeentzako arreta programa eta proiektuei, eta orobat eutsi zaie kolektibo horiekin jarduerak gauzatzeko dituzten elkarte eta entitateentzako urteroko dirulaguntzei.

## **BILBOKO KONTSEILUKO ORDEZKARIAK DIPUTATUEN KONGRESUAN**

Atzo, Garapen Jasangarriko Helburuen Garapen eta Jarraipeneko Bitariko Batzordearen bilkura izan zen Diputatuen Kongresuan, eta, han, zortzi ume eta nerabek Umeen eta Nerabeen Parte hatzerako Kontseiluen Estatuko seigarren Topaketaren ondorioak azaldu zituzten [UNICEF](#) erakundeak antolatua da topaketa hori. Bilkura horretan, umeen ikuspegitik landu ziren GJHak, eta agiri bat aurkeztu zen haien proposamenekin. Ume horien artean izan zen parte hartzen Bilboko Umeen eta Nerabeen Udal Kontseiluaren ordezkari bat, Gorka Apraiz, hain zuzen.

## **BILBO URIA, UMEEN ADISKIDEA**

Izan ere, Bilbok badauka jada UMEEN ADISKIDEAREN titulua 2018ko azarotik, ezagutza hori egin baitzion **UNICEF**ek; horretarako, 2015ean hasita, Bilboko haurren eta nerabeen bizimodua hobetzeko lan-prozesu bat gauzatu du, eta hainbat ekimen abian jarri izan ditu.

Zigilu horrekin, UNICEFek ezagutza agertzen dio Bilboko Udalak umeen eta nerabeen alde egiten duen lanari eta lan horren garrantzia azpimarratzen du.

## **ETORKIZUNARI BEGIRA**

Bilboko Udalak badu **Umeen eta Nerabeen 2018-2021 Udal Plana**, "**ETORKIZUNARI BEGIRA**" izeneko: plangintzarako dokumentu bat da, 10 lerro estrategiko eta zeharkako dituena, eta, horien inguruan, guztira 193 udal-ekintza, 18 urtetik beherako herritarrentzat pentsatuak. Helburua kolektibo horien eskubideak betetzen direla bermatzea eta hiriko bizitzan parte har dezaten bultzatzea da.

**#UmeenNazioartekoEguna**

## **BILBAO CONTINÚA CON SU COMPROMISO DE CONSTRUIR LA CIUDAD TAMBIÉN DE LA MANO DE NIÑAS, NIÑOS Y ADOLESCENTES**

- El Ayuntamiento conmemora el día de hoy, 20 de noviembre, Día Internacional de la Infancia, y ha reunido, esta mañana, en Pleno al Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia, formado por una representación de menores de la Villa.
- La capital vizcaina se consolidó como CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA en noviembre de 2018, cuando recibió este reconocimiento de UNICEF.
- En la sesión han trabajado y opinado sobre los Derechos de la Infancia y la Salud.
- La pandemia del COVID-19 ha afectado de una manera significativa a este colectivo que también ha visto mermados sus derechos de juego, de educación o sociales, entre otros. Para paliar las consecuencias emocionales y en el desarrollo de las y los menores, el Consistorio, durante de estos meses, ha puesto en marcha y reforzado sus programas de intervención.

*(Bilbao, 20 de noviembre de 2020).*- El Ayuntamiento de Bilbao conmemora el día de hoy, 20 de noviembre, **Día Internacional de la Infancia**, y ha reunido, esta mañana, en Pleno al **Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia**, formado por una representación de menores de la Villa.

Desde 2017, este Consejo, compuesto por un grupo de 46 niños y niñas de 11 y 12 años, trabajan en nuevas ideas sobre Bilbao desde su perspectiva. De esta manera, el **Ayuntamiento impulsa la participación de niñas, niños y adolescentes bilbainos también en la construcción de la ciudad** con propuestas de proyectos que les parecen interesantes y necesarios para mejorar la Villa.

En el Pleno, celebrado esta mañana de manera *online*, además de estos menores, han tomado parte las personas representantes de las formaciones políticas del Ayuntamiento, entre ellos, **Juan Ibarretxe**, Concejal de Acción Social, que ejerce de Presidente del Consejo. En la sesión han tratado temas relacionados con la actividad municipal como los **Derechos de la Infancia** y la **Salud** desde los ojos de las niñas y los niños de Bilbao.

### **MENORES Y EL COVID-19**

Respecto a este último tema, la salud, el Ayuntamiento de Bilbao ha tomado nota de la percepción de las y los menores sobre la situación sanitaria actual. La pandemia del COVID-19 ha afectado de una manera significativa a este colectivo que también ha visto mermados sus derechos de juego, de educación o sociales, entre otros. Para paliar las consecuencias emocionales y en el desarrollo de las y los menores, el Consistorio, durante

de estos meses, ha puesto en marcha y reforzado sus programas **para garantizar la intervención en familias en situación de vulnerabilidad:**

- En el confinamiento, para detectar la invisibilización de lo que pudiera estar ocurriendo en los hogares, se ha mantenido un contacto estrecho y se ha reforzado el vínculo para ofrecer apoyo y acompañamiento a través de llamadas telefónicas, *whatsapp*, vídeo conferencias y correos electrónicos. En las primeras semanas se contabilizaron **una media semanal de 11.471 contactos realizados desde los dispositivos municipales con 2.670 personas, 1.734 con adultos 896 con personas menores y se atendieron alrededor de 958 contactos semanales**. Después la frecuencia se fue espaciando según las necesidades y situaciones concretas de las familias.
- Para facilitar el contacto con las familias y menores afectados por la brecha digital y además para contribuir a que las niñas, niños y adolescentes pudieran conectar con los centros educativos, **se proporcionaron routers a 70 familias**.
- Desde el Programa de Prevención, Detección y Control del Absentismo Escolar (PAE) se intensificó el contacto con las familias para evitar la desconexión del alumnado y las familias con los centros educativos y reducir el ausentismo en el seguimiento de la escolaridad desde casa, bien por razones de desmotivación, brecha digital o dificultades de los y las tutores en realizar apoyo a las tareas. Se realizaron en torno a **3.533 contactos semanales, con una media de 220 menores y 470 adultos**. También se proporcionaron materiales y se facilitó el acceso a ordenadores en colaboración con los centros educativos.
- También y para contribuir a la **minimización del impacto de la brecha digital en la escolarización de las niñas, niños y adolescentes que carecen de recursos**, los servicios sociales municipales están colaborado con el programa de Gobierno Vasco "[Aukerak Suspertzen](#)", facilitando el acceso de 770 menores de 475 familias bilbainas, a los recursos que ofrece el programa.
- Desde el Programa de Intervención Psicosocial (PIP) se ha mantenido, en la medida de lo posible, la atención psicosocial a personas menores y adultos, para analizar su **estado emocional**.
- Durante el confinamiento y también en la desescalada se consideró prioritario la ocupación del tiempo de ocio de las niñas, niños y adolescentes y la recuperación del **derecho al juego**. A través de los contactos se ha promovido y apoyado para que las familias compartieran momentos gratificantes, especialmente con las y los más pequeños con actividades, juegos y retos, y se les ha proporcionado materiales y enlaces.

- Tras el confinamiento, se consideró importante mantener las **colonias de verano, del Ayuntamiento y de Entidades sociales arraigadas en los barrios, a las niñas, niños y adolescentes** y así recuperar el juego en los espacios abiertos.
- Como en ejercicios anteriores, se han mantenido los **convenios de colaboración con entidades del Tercer Sector** dando continuidad a programas y proyectos para la atención de personas menores en situación de riesgo, así como las subvenciones anuales a asociaciones y entidades que desarrollan actividades con estos colectivos.

## **REPRESENTANTE DEL CONSEJO DE BILBAO EN EL CONGRESO DE LOS DIPUTADOS**

Ayer, tuvo lugar la Comisión Mixta de Desarrollo y Seguimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en el Congreso de los Diputados, donde un grupo de ocho niñas, niños y adolescentes expusieron las conclusiones del sexto Encuentro Estatal de Consejos de Participación de infancia y adolescencia organizado por [UNICEF](#). Una sesión donde trataron los ODS desde el punto de vista de la infancia y presentaron un manifiesto con sus propias propuestas. Entre esos niños y niñas, ha participado un representante del Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia de Bilbao, Gorka Apraiz.

## **BILBAO, CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA**

De hecho, Bilbao ostenta el título de **CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA** desde noviembre de 2018, cuando recibió este reconocimiento que otorga **UNICEF**, tras llevar a cabo un proceso de trabajo desde el año 2015 y la puesta en marcha de diferentes iniciativas que pretenden mejorar la vida de las niñas, niños y adolescentes bilbainos.

Con este Sello, UNICEF reconoce y pone en valor el trabajo a favor de las y los niños y adolescentes realizado por el Ayuntamiento bilbaino.

## **ETORKIZUNARI BEGIRA**

El Consistorio bilbaino cuenta con un **Plan de Infancia y Adolescencia 2018-2021 ETORKIZUNARI BEGIRA**, un documento de planificación con 10 líneas estratégicas y transversales, que se articulan en 193 actuaciones municipales dirigidas a menores de 18 años. El objetivo es garantizar el cumplimiento de los derechos de estos colectivos e impulsar su participación en la vida de la ciudad.

**#DialInternacionaldelInfancia**